

EROSKIK ITXI DU 2018KO EKITALDIA, BERRIZ ERE EMAITZA POSITIBOekin

- **Taldearen etekin operatiboa zortzigarren urtez hobetu da, eta %19 baino gehiago igo da 2017koaren aldean**
- **Ebitda 250,7 milioi eurotara iritsi da, aurreko urtean baino 9 milioi euro gehiago**
- **Kooperatiba nagusiak, hau da, EROSKI Sozietate Kooperatiboak, 13,9 milioi euroren irabaziak izan ditu**
- **Beste 58 denda ditu orain, eta sendotu egin du "zurekin" eredu komertzialera eraldatzeko plana; hala, 670 saltoki baino gehiago ditu orain belaunaldi berrikoak**

Elorrio, 2019ko maiatzaren 23a.- [EROSKI](#) Taldeak emaitza positiboarekin amaitu zuen 2018ko ekitaldia, kontuak 2019ko urtarrilaren 31n itxita. Itxieran, 1,6 milioi eurokoa izan da etekina, eta horretan eragina izan dute aktiboen balorazioen ezohiko emaitzek eta finantza tresnen kontularitza arauak aldatu izanak. Dena den, etekin operatiboa hobetu egin da 2018an ere, zortzigarren urtez jarraian, eta 163,6 milioi eurotara iritsi da. Horrek esan nahi du aurreko urtean baino %19,1 gehiago handitu dela. *Ebitda* ere hobetu egin da, eta 9,1 milioi euro handitu; hala, 250,7 milioi eurotan dago orain. Aldeko eboluzio horretan, zerikusia izan dute efizientzia eta produktibitatea hobetzeko egindako zenbait proiektutan izan dituen lorpenek eta sare komertzialaren eraldaketak eta berrikuntzak.

Irekierak eta eraldaketak, giltzarrizkoak salmentak indartzeko

2018. urtean, EROSKI taldeak jarraitu du bere sare komertziala eraldatzen "zurekin" eredura, eta hori da belaunaldi berriko denden ezaugarria. Dagoeneko 670 denda daude eraldatuta, eta horietan saltzen ditu taldeak elikagaien %70 pasa.

Taldearen salmentak 5.393 milioi eurotara igo dira, 2017an baino %2 gutxiago, perimetroa murriztu duela eta. Nabarmentzekoa da eskualde guztietan igo direla salmentak sarea "zurekin" eredura eraldatua badago; aipagarria da, batez ere, %1,3 igo izana EAEn, Nafarroan, Galizian eta Balearretan. Eskualde horietan, oso zabaldua dago eraldaketa. Ereduren emaitza onei esker, sendotu egin dugu iparraldean eta mendebaldean dugun lidergoa, eta eremu horietan egin ditugu gure sarearen eraldaketarik gehienak. Horren osagarri, gainera, geure posizioa indartzen lagundu diguten denda propioak eta frankizia erakoak ireki ditugu. Zehazki, 58 denda inauguratu ditu taldeak 2018an: 37 frankizia eta 21 denda propio —5 supermerkatu, 4 gasolindegia, 4 bidaia agentzia eta 8 FORUM SPORT kirol denda, DOOERS bere marka berriarekin—. Inbertsioa 95 milioi eurokoa izan da 2018an, denda propioetan eta frankizia erakoetan egin.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

2010etik hona, EROSKI 187 milioi euro gutxitu du bere zor finantzarioa, eta 2010etik hona, 1.800 milioi eurora iritsi da zorraren amortizazioa. Hortaz, agindu bezala bete ditu finantza erakundeekin hartu zituen konpromiso guztiak. 2019ko martxoan, EROSKI hitzarmen bat egin zuen bere zorraren parte handiena duten finantza entitateekin, eta, datozen hilabeteetan, gainerako finantza entitate hartzekodunetara hedatuko du hitzarmen hori. Hala, bere etorkizun finantzarioa argitu du, eta bere negozio plana garatu ahalko du sarea eraldatuz eta elikadura osasungarriagoa eta iraunkorragoa erraztuko duen kontsumo baten aldeko irtenbideak emanaz.

Guztira, 6 milioi dira EROSKIren Bazkide Bezeroak, EROSKI Club txartelaren, CAPRABO txartelaren eta FORUM SPORT txartelaren jabeak. 2018. urtean, Taldeak 302 milioi euroko aurrezpena transferitu die bezeroei eskaintza eta sustapenetan, zeinak gero eta pertsonalizatuagoak diren.

Bestalde, EROSKI S.COOP kooperatiba nagusiak jarraitzen du emaitza positiboak izaten azken urteetan, eta 2018an, zehazki, 13,9 milioi euroko etekina izan du, 2017an baino %6,6 gehiago. Salmentak ere 1.741 milioi eurotara igo dira, eta, hortaz, aurreko ekitaldia baino %1,3 gehiago da hori.

EROSKI TALDEAREN USTIAPEN KONTU KONSOLIDATUETATIK ateratako datuak		
Milioi eurotan		
	2019/01/31	Aurreko urtearen aldean
SALMENTA GARBIAK (BEZ GABE)	4.698,07	98%
EBITDA	250,7	%103,8
ETEKIN OPERATIBOAK *	163,62	119,1%
FINANTZARIOEN ETA ZERGEN AURREKO EMAITZA	120,73	103,6%
ZERGA ONDORENGO EMAITZA	1,59	%4,8

* Narriaduren, ibilgetu salmentaren emaitzaren, aktibitate ez-korronteen, finantzarioen eta zergen aurretik.

EROSKIri buruz

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziatzko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.652 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash & carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sei milioi Bazkide Bezero baino gehiago ditu, eta 33.800 bazkide kooperatibista, langile eta frankizia-hartzaile.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)